

Europako banku etikoen sorburua?

Fiare euskal banku etiko eta solidarioaren proiektua da. Dagoeneko lanean hasi dira justizia sozialaren aldeko zerbitzua eskainiko duen bankuaren ideia Espainiako Estatu osora hedatzeko. Europar Batasuneko banku etikoen hastapena izateko asmoa dute.

DANIEL UDALAITZ

Argazkia: Iñigo Azkona

FIARE Hego Euskal Herrian 2005ean sortutako banku etikoaren proiektua da. Ehun baino erakunde sozial gehiagok bultzatu dute eta Angel Toña katedraduna da finantza erakundearen buru.

Pasa den uztailean elkarriketa teknikoak egin zituzten, Italian zein Frantzian, Nef-arekin (finantza elkarte frantziarrarekin) eta Banca Popolare Etica italiarrarekin. Proiektu europar hau ez da burutzen erraza izango, hiru herrialdek baino gehiagok osatuko baitu. Aipatutakoez gain, Suitzako, Belgikako eta Frantziako erakundeek ere parte hartu nahi dute proiektu horretan. Angel Toñak zera esan du: “Fiare Europa osoa hartzen duen eta tamaina garrantzitsu samarra duen bankuaren hastapena izan daiteke”.

2005ean *Fiare* aldizkariak ekarritakoaren arabera, ekimena hainbat euskal erakunde sozialetan sortu zen 2001az geroztik. 2003ra arte ez ziren Fiare Fundazioa sortzeko oinarritzko urratsak eman. Azkenik, 2005ean, Italiako Banca Popolare erakundearen laguntza lortu zuten. Urte berean, lehenbiziko banku-bulegoa ireki zen Bilboko Alde Zaharrean. Orain, Fiarek 10 milioi euroko gordailuak dauzka. Helburua, hiru urte barrurako 60 milioi euro lortzea da,



Fiarek, banku etiko eta solidarioaren proiektuak Bilboko Alde Zaharrean duen bulegoa.

errentagarriak izateko. Ez dute uste Hego Euskal Herrian horrelako kopurua lor dezaketarik, baina Espainiako Estatuko hainbat erkidegoren laguntzaz, 100 milioi euro baino gehiago lortuko dituztela uste dute.

Espainiako Estatuko kreditu kooperatiba sortzeko asmoa

Europako helburuez gain, Fiareren asmoa orain Espainian kreditu kooperatiba sortzea da. Erakundea

“ohiko banku sistemaren ordezkotako finantza esparruan arituko da, irizpide solidarioen arabera”. Dagoeneko data jarri dute Espainiako Bankuak eman behar duen kreditu kooperatibaren fitxa lortzeko: 2010.

Espainiako Bankuaren laguntza ofiziala lortzeko gutxienez 8 milioi euroko kapital soziala lortu behar da Espainian. 1,5 milioi euro Hego Euskal Herrian lortzea espero dute eta gainerakorako loturak dituzte Katalunian, Madrilan, Valentzian eta

Bazkide egiteko

Bazkide egitea ez da batere zaila. Oztopo guztiak kenduko dira herritarrek erakarri eta milaka bazkide lortzeko eta partaidetza txiki samarren bidez proiektu solidario handia lortzeko. Bazkide izateko 100 euroko kapital-ekarpena egin behar da eta kooperatiba osatzen denean, bazkide izatea eska daiteke. Ekimen hori zabalik dago, halaber, erakunde juridikoentzat. Azken horiek, gutxienez, 500 euroko ekarpena egin behar dute. Fiareren arduradunek lortu nahi duten kapital sozialaren erritmoa urteko 400.000-500.000 eurokoa da. Horrez gain, herritarren parte-hartze handia lortu nahi dute, finantza proiektu solidario horren oinarria herri ekarpenean sostenga dadin. Beraz, Hego Euskal Herrian, 100 euro jarriko luketen 15.000 bazkide beharko dira

1,5 milioi eurora iristeko, 8 milioi euro behar baitira Espainiako Bankuaren babesaz lortzeko.

Ekimen horretan parte hartzen dutenek kapital sozialean edo gordailuetan egingdako inbertsioa nahi dutenean berreskura dezakete, baina ez Espainiako Bankuari kreditu kooperatibari dagokion fitxaren eskaera egin baino sei hilabete lehenago. Bazkide berriak erakartzeko ez da ohiko publizitatea erabiliko, ahoz aho eta elkarrez elkarre zabalduko da. Gainera, kanpaina Euskal Herrian egiteaz gain, Espainian ere egingo da. 2010erako, Fiareren proiektu hori bultzatzeko sei erakunde sortu beharko dira Espainian. Gero, bakoitzak dagokion partaidetza izango du, bildu duen diruaren eta jendeak gorde duen diruaren arabera.

Andaluzian. Urtea bukatu baino lehen, ordezkariak ireki nahi dute Katalunian; joan den ekainean, hain zuzen, lehen mailegua eman zen. Hil berean, maileguak eman ziren Nafarroan, eta Gasteizen, lehenbiziko delegazioa ireki da. Fiare bazkideak lortzeko kanpainarekin hasi da, berehalako helburua lortzeko behar den gutxiengo kapital soziala osatze aldera.

Fiareko arduradunak baikor dira: "Solidaritateak ez du mugarik". Euren iritziz, datozen hiru urteetan banku etikoaren proiektuak jauzia eman eta aurrera egin dezake elkartasunezko sare sozial gisa, kreditu kooperatiba berriaren bidez, eragin sozial eta eraldatzailea izan dezaketen jarduerak ekonomikoak finantzatu ahal izateko.

Lau zutabeak

Sortuko duten kreditu kooperatibaren bidez, arduradunek "fin-

kapen sozial indartsua duen herritarren bankua" lortu nahi dute, "horixe baita arrakastaren sekretua".

Proiektuaren oinarritzko zutabeak lau dira. Lehenengoa: kredituak justizia sozialaren zerbitzura egon behar du, finantza jarduerak etikoan lehentasuna duten elementuak honako hauek baitira: garapenerako lan-kidetzak, gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea, ingurumenaren babesa sustatzen duten eta gizarte-balio solidario eta eraldatzaileak sortzen eta hedatzen dituzten proiektuak. Bigarrena: Fiareren bitarteko lana herritarren sareen bidez egiten da. Hirugarrena: aurrezpen arduratsua, parte hartzea eta gardentasuna bultzatzea. Eta laugarren zutabea, irabazteko asmorik gabeko eta denon probetxurako proiektu alternatiboa izatea. ■

gaztelupeko HOTSAK
 Errealak 21
 20598 SOHALUZE
 Tel: +34 943 752014
 Fax: +34 943 752129
 gaztelupeko@hotsak.com
 www.hotsak.com

WWW.HOTSAK.COM

PETTI
On

TXUMA MURUGARREN
Marginalia

UEK
Uhinak

FAST FATUM
Fast Fatum

MAMBA BEAT
Mamba beat

KOKEIN
Mundu margotu berri bat